

I

(Komunikazioak)

KONTSEILUA

KONTSEILUAREN ONDORIOAK

2005eko ekainaren 13koak

Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak

(2005/C 148/01).

1. Ondorio hauek Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitako besteko hizkuntzei buruzkoak dira, zehazki estatu kide baten Konstituzioak aitortutako estatutua izanik lurralde osoan edo zati batean hizkuntza nazional gisa erabil daitezkeenei buruzkoak.
2. Kontseiluaren ustez, Batasuna herritar guztiengana hurbiltzeko egin beharreko ahaleginen esparruan, gehiago azpimarratu behar da Batasuneko hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna.
3. Kontseiluak uste du herritarrek instituzioekiko harremanetan beste hizkuntza batzuk erabili ahal izatea faktore garrantzitsua dela herritarrek Europar Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.
4. Kontseiluan, 1. puntuan adierazitako hizkuntzen erabilera ofiziala baimenduko da; horretarako, erabilera ofizial hori eskatzen duen estatu kideak administrazio-akordioak egingo ditu Kontseiluarekin edo, hala badagokio, Batasuneko beste instituzio edo organo batekin.
5. Akordio horiek Tratatuari eta haiek betearazteko hartutako xedapenei jarraikiz egingo dira, eta jarraian azalduko diren baldintzetara egokitu beharko dira. Batasuneko instituzio eta organoek administrazio-akordio horiek aplikatzearen ondoriozko zuzeneko edo zeharkako kostuak estatu kide eskatzailearen kontura izango dira.

a) *Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakitzeko prozeduraz onartutako egintzak argitaratzea*

Estatu kide bateko Gobernuak Europako Parlamentura eta Kontseilura bidaliko ahal izango du elkarrekin erabakitzeko prozeduraren bidez onartutako egintzen itzulpen ziurtatua 1. puntuan aipaturiko hizkuntzetako batean.

1. Kontseiluak bere artxiboetan gordeko du itzulpen hori, eta horren kopia emango du interesdunak eskatuz gero. Kontseilua arduratuko da itzulpen horiek bere Interneten argitaratzeaz. Bi kasuetan, adieraziko da itzulpen horiek ez dutela balio juridikorik

b) *Ahozko esku-hartzeak Kontseiluan edo, hala badagokio, Batasuneko beste instituzio edo organo batzuetan.*

Estatu kide bateko Gobernuak Kontseiluari edo beste instituzio edo organo batzuei (Europako Parlamentua edo Eskualdeetako Komitea) eska diezaieke, hala badagokio, dena delako instituzio edo organo bateko kide baten ahozko esku-hartzeetan 1. puntuan adierazitako hizkuntzetako bat erabili ahal izatea (interpretazio pasiboa). Kontseiluaren kasuan, printzipioz bideratu egingo da eskaera hori, betiere bilkurarekiko behar besteko aurrerapenez egiten bada eskaera eta horretarako behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak badaude.

c) *Batasuneko instituzio eta organoekiko idatzizko komunikazioak*

Estatu kideek egintza juridiko bat onar dezakete, ezartzeko ezen, herritar batek 1. puntuan adierazitako hizkuntzetako batean idatziriko komunikazio bat bidali nahi badio Batasuneko instituzio edo organo bati, komunikazio hori estatu kide horren gobernuak izendatutako organoari bidali beharko diola. Organo horrek dagokion instituzio edo organoari bidaliko dio komunikazioaren testua, Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitako estatu kideko hizkuntzara egindako itzulpenarekin batera. Prozedura bera aplikatuko zaio, *mutatis mutandis*, dena delako instituzio edo organoak emandako erantzunari.

Batasuneko instituzio edo organoek erantzuteko epe bat errespetatu behar dutenean, epe hori hasiko da kontaktzen instituzioak edo organoak estatu kidearen partetik jasotzen duenean Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitako hizkuntzetako batera itzultitako testua. Epea eten egingo da Batasuneko instituzioak edo organoak bere erantzuna azken hizkuntza horretan bidaltzen dionean estatu kideko organo eskudunari.

Kontseiluak gainerako instituzioei gonbita egiten die administrazio-akordioak egin ditzaten honako hau oinarri hartuta.
